

Auzolanari esker egiten da Gau Beltza

Gizarte eta kultur mailako elkarteak, Aiurri, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Andoaingo Udala eta boluntarioak, elkar hartuta / 6-7

AIURRI

Rol jokoen magia

Urrietan aztergai izan dute aisialdiari eta fikzioari loturiko jarduerak / 8-9

Sanmielen
osteko balorazioa
egin du
Urrietako Txosna
Batzordeak / 3

'Lurdes Iriondo, ez
gera alferrik pasako'
dokumentalaren
aurrestreinaldia,
Urrietan / 12

LV. **BINAKAKO**
ERREMONTE
TXAPELKETA 2025

Orona
Fundazioa

AZAROAK 1

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA JAI ALAI

LEHEN PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
SUSPERREGI · ESKUDERO VS
AIESTARAN VII · GOIKOETXEA VI

2. PARTIDA (BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA)
ANSA II · ZUBIRI VS
ALDABE · AZPIROZ

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
JABALERA · LARRAÑAGA VS
EZKURRA II · MARTIRENA

SARRERAK

ORONA HENDY

K

65 SUKIO

TXAPELKETA GALARRETA

HAIN GELUZKOA

Orona

AIURRI




agerraldia
euskara plaza

aek


IKASTOLAK


Sortzen

urriak 23 - azaroak 13

Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko**
produktuz beteriko saskiak eta eman balioaren
%25 zonaldeko euskalgintzari



Saski beltza 60€



Saski berdea 65€



Saski gorria 75€

POSTONTZIA

URNIETAKO TXOZNA BATZORDEA URNIETA

Jaien osteko balorazioa

Pasa diren Urnietako jaiak ez dira inoren gustukoak izan. Txozna Batzordea osatzen dugun eragileok ezin dugu bestelakorik esan. Irailaren bukaeran herrian sortzen den giroa ez da urteko gainontzeko egunetan ikusten. Gozamenerako egunak dira, zeinetan txosnagunea ardatz bihurtzen den urnietar askorentzat. Dakizuen bezala, hainbatetan pairatutako oztopen eta Udal Gobernuak inposatu nahi zuen ordenantzaren ondorioz, aurtan ez dugu horrelako gunerik eduki. Adibide asko daude Udal Gobernuaren jarrera eta intentzioa argi erakutsi dutenak: txosnagunaren gaineko kontrola areagotzea herritarren antolakuntza propioa kontuan izan gabe. Egoera onartezin honen kontra hasi ginen borrokan eta bere horretan jarraitzen dugu.

Aipatutako borrokaren parte izan dira 2025eko Sanmieletan aurrera eramandako ekintza zein aldarrikapenak, beharrezkoa iruditzen zaigulako herritar guztiek erralitatearen berri

"EGOERA ONARTEZIN BATEN KONTRA HASI GINEN BORROKAN, ETA BERE HORRETAN JARRAITZEN DUGU"

izatea. Aldi berean, argi ikusi da Txozna Batzordeko eragileak ez garela zeresana daukagun bakarrek, herria haserre dago eta hainbat formatan islatu da haserre hori. Ikusi ditugun erantzun eta babes keinuengatik eskerrak adierazi nahi dizkizuegu. Batzuk sinestarazi nahi digutenaren kontra, honek ez gaitu banatzen, herritarrok elkarrekin gaude.

Honez gain, irmoki salatu nahi dugu Udal Gobernuak prozesu guzti honetan izan duen jarrera. Inongo momentutan autokritikarik egin ez eta Txozna Batzordeari txoznak ez egotearen ardura aurpegiratzeaz gain, jaietan antolatu diren ekimen guztietan polizia –uniformeduna zein kalez jantzitakoa– egotea onartezina iruditzen zaigu. Beraien interesetara egokitutako diru publikoaren xahuketa lotsagarria dela uste dugu eta emandako kriminalizazio saiakerak guztiz arbuiaitzen ditugu. Azken orduan ere, beraien gestio txarra ezkutatzeko asmoz, musika taldeekin egindako gastua edo manifestazio bukaeran, herriko plazan, gure irakurketa oztopatuz musika jarri izana salatzen ditugu. Ez dugu ulertzen Udal Gobernu batek bere herritarren jarduna etengabe oztopatzea, “elkarlana” eta “parte

hartzea” bezelako hitzez ahoa betetzen duten bitartean.

Ez ditugu esku-hartzeak onartuko, herriak duen espazio bakar honek bere horretan jarraitu behar du. Herritik eta herriarentzat sorturiko txosnagune baten alde lanean jarraituko dugu. Garbi ikusi da guztion indarraren, antolakuntzaren eta elkartasunaren bitartez gauzak aldatzeko gai garela, askotan ezinezkotzat ditugunak ere. Aurtengo hutsune mingarriaren gainetik, urte luzez mantendutako espazio duin honek bere izaera aske eta anitza izaten jarraituko du. Bide horretan, ordenantza berriaren osaketan buru-belarri lanean izango gara hurrengo hilabeteetan, errespetuzko elkarlan bat helburu.

Gauzak horrela, Txozna Batzordearen hautua argia da: Esandako guztiagatik, herritik eta herriarentzat borrokan jarraitzea. Urnietar guztiei ere gurekin borrokan jarraitzeko deia luzatzen dizuegu.

Gora Urnieta!
Gora Txozna Batzordea!

"ORDENANTZA BERRIAREN OSAKETAN BURU-BELARRI LANEAN IZANGO GARA"

KOMUNITATEA

KONTSEILU SOZIALISTA BURUNTZALDEA BETERRI-BURUNTZA

Faxismoaren gorakadari aurre egin

Urriaren 12an falangistek ekitaldi politiko bat antolatu zuten Gasteizen. Gerora, zenbait alderdi politikok modu onartezinean bi aldeak zaku berean sartu nahi izan dituzte. Ezin da onartu Gasteizera eskubide nazionalak zein sozialak ezeztatzera, frankismoari gorazarre egitera, euskara erasotzera, migranteak kriminalizatzera edo aniztasun sexuala ukatzera etorritakoak, horien aurka jardun zutenekin alderatzea. Honekin batera, beharrezkoa da Ertzaintzaren ekinbidea zuritu izana salatzea. Zabaldutako irudietan Ertzaintza falangistekin batera kargatzen ikusten da, faxistek burdinezko barra eta makilekin gasteizarrak mehatxatu eta kolpatzen zituzten bitartean. Amaierako emaitzak argi adierazten du polizia autonomikoaren eta horren arduradun politikoen interesa: 19 antifaxista atxilotu eta falangistarik ez.

Faxismoa gorroto eta biolentzia ideologia bat da: etorkinen, emakumeen, komunisten eta oro har langile klasearen aurkakoa. Azken urteetan nabarmen areagotzen eta normalizatzen ari da, eta igandekoa bezalako iniziatibak dira hori aurre egiteko formula indartsuenetako bat. Faxistei kaleak hartzen utziz gero beraien jarduna normalizatzen da, eta hori kosta ala kosta ekidin behar dugu.

Agerikoa da: ideia erreakzionario eta faxistak geroz eta indar handiagoa dute gizartean eta ezin da onartu hauen aurka borroka egiten duten pertsonen kriminalizazioa. Ezinbestekoa da ideia hauei katean ere aurre egitea eta aurrerapausorik ematen ez uztea. Bide horretan, gakoa faxismoaren eta berau sortzen duen kapitalismoaren aurka egunerokoan antolatzen eta borrokatzen jarraitzea da. Faxismoaren gorakadari aurre egin!

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:
ERROITZ
SALITU MUGATUA

ALJATUAK:
TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

BABESLEAK:
Aurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

ZIURTAGIRIA:

Urnietako

udala

andoaINDARRA

euskaraz



Astearte eguerdian egin zuen agerraldia Udal Gobernu taldeak. AIURRI

Foru Aldundira joko du alkateak

Gipuzkoako Foru Aldundiari iritzi-bilketaren emaitzaren berri ematea eta hurrengo urratsei buruz hitz egitea da Andoni Alvarez alkatea buru duen Gobernu-taldearen asmoa. Xedea, beraz, Felix Urkola Bide Azpiegituretako Sailburuarekin elkartzea da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Udal Gobernu-taldea astearte eguerdian agertu zen hedabideen aurrean, urrian antolatu duen gizarteratze-prozesuaz balorazioa egiteko. Auziaren erabakigunea Gipuzkoako Foru Aldundian dagoela jakitun izanik ere, Andoni Alvarez alkateak berretsi zuen bere egiten zuela herritarrek emandako iritzia. Eta orain zer? Hasteko eta behin, ostegun honetan auziak protagonismoa hartuko du plenoan. Izan ere, urriko udal batzarraldian, Errespetatu Andoain plataformak mozioa aurkeztuko du eta haren inguruan iritzia eman beharko dute. Bestalde, Bide Azpiegituretako sailarekin harremanetan jarriko da Andoaingo Udala, helburu bikoitzarekin: Aldundiari iritzi-bilketaren emaitzaren berri ematea eta hurrengo urratsei buruz hitz egitea.

Iragarpen hori egin aurretik, Andoni Alvarez Andoaingo alkateak gizarteratze-prozesuaren ibilbidea xehetasun osoz deskribatu zuen, urte hasieran iragarritako bide-orriarekin bete duela adieraziz: "Andoainen eta andoaindarren etorkizuna horrenbeste baldintzatzen duen egitasmoa, herritarrekin batera landu behar genuela iruditzen zitzaigun eta horrela egin genuen. Urte hasieran aurkeztu genuen bide-orria bete dugu".

Aurtengo prozesuaren aurretik, legealdi hasieratik, hainbat bider deitu duten mahai sektoriala hizpide izan zuen ere. Bertan elkartu dira udalean ordezkariak duten alderdi politikoak, Sorabilla Auzo Elkartea eta Errespetatu Andoain plataforma. Mahai horretan jakitun ziren Espainiako Gobernutik iritsitako 476.000 euroekin azterlan

teknikoa eskatuko zuela Andoaingo Udalak.

Azterlan teknikoa

Egingarriak ziren alternatiba ezberdinen azterlana egitea eskatu zion udal erakundeak Sestra enpresari, eta alternatiba ezberdinen konparaketa landu eta udaberrian jendaurrean aurkeztu zen. Uda ostean iritsi zen hitzaldi-sorta eta iritzia emateko epealdia.

Balioan jarri zuen, hori guztia azaldu ostean, iritzi-bilketan bildutako emaitza: "2.494 herritarren parte-hartzea balioan jarri behar da. Ez gaude ohituta iritzi ematera, eta are gutxiago horrelako egitasmoetan. Eta, hala ere, zentsuaren ia %20 ak eman du bere iritzia". Iritzi horiek horrela banatu dira: %93k Saihesbidearen aldeko iritzia eman du; % 4ak, Lazoaren alde".



Plataformako kideak irailean egin zuten elkarretaratzean. AIURRI

Mozioa aurkeztuko du plataformak

"Errespetatu Andoain plataformak oso positibotzat jotzen du Andoainen bizi-kalitatean eragin zuzena duen gai baten inguruan sozializazioa eta herritarren parte-hartze prozesua gauzatu ahal izana", hitz horiekin balioan jarri zuen Andoaingo plataformak aurreko asteetan egindako prozesua. Hori amaituta, plataformak mozioa aurkeztuko du urriko plenoan eta ikusteke dago alderdi politikoaren jarrera zein izan izango den. Aurreko ostiralean hedabideetara zabalduko oharrean kritiko agertzen ziren ordezkariak duten hainbat alderdirekin. Adostasuna faltan bota izan dute eta Usansoloko prozesua aipagai dute ohar horretan: "Ez dugu ulertzen zergatik Usansolon (Bizkaia) herri kontsulta bat egin den ordezkariak duten alderdi politiko guztien eta auzo-plataformaren babesarekin —EAJ-PNV barne— Eusko Jaurilaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Trenbide Sarearen erabaki baten aurka, eta Andoainen, berriz, ezin den informazioa sozializatu edo iritzia eman, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bulego batetik inposatzen den erabaki baten aurka. Zintotasunez, gustatuko litzaiguke Andoaingo hautetsiek ere gure udalerriko interesak defendatzea, Usansoloko hautetsiek beren herriarenak defendatzen dituzten bezala. Gaur herritarren parte-hartzea ospatzen dugu, jasotako 2.494 iritziak eskertzen ditugu eta gure eskubidea praktikan jartzean parte hartu izanaren poza partekatzen dugu.".



Agerraldia egin zuten udaletxean aurreko astean. AIURRI

Emaitzaren bermatzaileak

Carlos Sanz, Andoaingo alkatea ohia (1987-1991, Euskadiko Ezkerra); Bea Amondarain, irakaslea eta Caritaseko kidea; Luis Escudero, irakaslea eta FIARE banku etikoko kidea; eta Garazi Kamio, idazlea eta irakaslea izan ziren iritzi-bilketaren bermatzaileak.



Beilatokia errausketa-labea
Rekalde Berri

Bestelako agurra posible da
Utzi zure emozioak sentitzen.
Gu gainerako guztiaz arduratzen gara.

Kapera eta agur-gela
Kafeteria eta Catering gourmet
Murgiltze gela
Aparkaleku pribatua
Arreta emozional jarraitua
Espazio intimoak, dotoreak eta atseginak



www.albia.es 900 24 24 20
Errekalde hiribidea, 55 20028 Donostia

Istuitza GARDEN

Enkarguak jasotzen ditugu

943 592 448

**Aurten ere
azaroaren
erdia arte
zabalik**

Landarez eta lore
naturez osatutako
zentroak

Artifizialak ere aukeran

Egun osoan
ordutegi zabala

Karrika, 9. ANDOAIN

Erraldoi berrien aurkezpena, Gau Beltzan

Txalaparta, kalejira, dantza saioa, antzerkia, beldurraren pasabidea, zezen-suzkoa... eta, aurtengoan, erraldoi berrien agerpena gehitu behar zaio. Urtez urte, beraz, elementu berriei aberasten ari da Andoingo Gau Beltza



Ospakizuneko partaide diren hainbat eragile astelehen iluntzean ateratako argazkian. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ostiral honetan, Andoingo kaleetan, Gau Beltzaren edizio berria ospatuko da. Aiurri eta Larramendi Bazkuna dira antolatzaileak eta ezinbestekoak dira Andoingo Udala, Salkin merkatarien elkarte eta herriko hainbat elkarte. Auzolanean egin du ibilbidea Gau Beltzak eta, datozen urteetan ere, bokazio hori izango du ospakizunak.

Andoingo Udalak eta Salkin merkatarien elkarteak laguntza ekonomikoa eta baliabideak jarri ditu antolakuntzaren esku. Elkarte gastronomikoen ekarpena premiazkoa da. Batzokiko kideek, esaterako, 500 lagunentzat txokolate-beroa prestatu eta zerbitzatzen dute. Irunberrikoek, aldiz, elkarte Beldurraren Pasabide bilakatu ohi dute eta bertatik igarotzen direnei gaztain-erreak banatzen dizkiete. Kotoi elkartearen taloak egin eta banatzen dira eta Peña Santa Krutz elkarte kalejirako atsedendek bilakatu da eta bertako sukaldea ere iluntzeko afaria prestatzeko erabiltzen da.

Kultur elkarteek ere ekarpen polita egiten diote ospakizunari.

Maizorri txalaparta taldeko kideekin abiatzen da ospakizuna eta Urki dantza taldeko gazte-txoek emanaldia egin ohi dute Goikoplazan. Antzezpenak bere tokia du Gau Beltzan, ospakizunaren jatorria zein den ulertzeko baliagarria baita. Aurten, Katramila antzerki taldeko gazte taldeak parte hartuko du antzezpenean. Lebiton konpart sarekin amaituko da jaia, Lebi zezen-suzkoa aterako baitute Etxeberrieta plazan. Ezin aipatu gabe utzi "Akerrak Okerrak" kalejira. Laugarrenez hurbilduko dira Andoainera Gau Beltza girotzera. Kultura sailetik kontratatutako saioa da hori.

Aurtengo berrikuntza nagusia

Andoingo Udaleko Kultura zinegotzi Marta Lasak egin du iragarpena: "Iragarpena egin nahi dugu aurtengo edizioari begira. Parte-hartzaileen zerrendari gehitu behar dira bi erraldoi berri: Sorgina eta Basajaun. Aurten, Goikoplazatik Juanita Alkain plazatorainoko ibilbidea egingo duten. Andoaindarrei Gau Beltzan murgiltzeko gonbita luzatu nahi diegu".

Azoka eta tonbola, azaroaren 15ean

lazkoak izan zuen harrera beroa ikusita, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak edizio berria prestatu du: datorren azaroaren 15ean izango da, larunbarekin, Goikoplazan. Postu ugari ipiniko dituzte, baita arrakasta handia izan zuen tonbola ere

Erredakzioa ANDOAIN

"Andoingo Euskera, bihotzetik kalera!" kanpainari ekin zion, iaz, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak. Ekitaldien artean sonatua izan zen gastronomia eta artisau azoka eta, aurten, bigarren edizioa antolatzeari ekin diote. Datorren azaroaren 15ean, larunbarekin, izango da Andoingo Goikoplazan, goizeko 11:00etan hasita. Bertan, Euskal Herriko hainbat ekoizle postua jarriko dute, gastronomiaren alorrekoak zein artisautza langintza ezberdinetakoak. Azokaren barruan, aurten ere tonbola antolatuko da, ehunka opari banatuko dituen egun



lazko azoka, Goikoplazan. AIURRI

osoan. Askoren artean, otorduak, elikagaiak, eskapadak, kultur produktuak, sarrerak... Tonbolako sariak Andoingo dendari eta merkatariek emanak dira, baita azokara bertaratuko diren ekoizleek eta, herritik kanpo, Gipuzkoako beste denda, enpresa eta erakunde batzuek ere.

Egoitza berria, Larramendi Bazkunaren xedea

Goikoplazan antolatzaileek ipiniko duten tonbolan herritarrek ematen duten laguntzaren helburua Andoingo kalean egoitza berria erostea da. Xede horrekin eman zion Manuel Larramendi Kultur Bazkunak hasiera ekitaldiari, iazko udazkenean. Aurten ere ekitaldia antolatu zuen Kaimuturrean eta hamabost egun barru iritsiko da azokaren edizio berria.

Andoingo Udalaren, Rural Kutzaren, Aiurriren eta Eusko Labelen babesarekin antolatu du azoka Larramendi Bazkunak. Egun horretan, gainera, euskara elkarteko boluntario ugari egingo du lan. Haien guztien ekarpena ezinbestekoa da egitarau osoa antolatu ahal izateko.

Egun osoko ospakizuna Goikoplazan

Azaroak 15, larunbata. Goikoplaza.

Egitaraua:

11:00 Azoka irekiera.
12:30 Anuk eta Eleneren kontzertua.
16:30 Toka txapelketa.
18:00 Irrintzi txapelketa
19:00 Komerik taldearekin erromeria.

Jana eta edana

Gastronomia eta artisau azoka izanik, ekoizle ugari bertaratuko da Andoainera. Bi aipatzearren: Iker Etxeberren Brew&Roll garagardoa eta Txomin Parrilla.

Tonbola

Saria ziurra da. Gehien-gehienak, bikainak: Otorduak, eskapadak, elikagaiak...

GAU BELTZA

2025

ANDOAIN

URRIAK 31, OSTIRALA

18:00 Txokolate-jatea, txalaparta eta antzezpena Goikoplazan.

19:00 Beldurraren pasabidea, Kale Nagusian.

19:15 Urki Goikoplazan eta, jarraian, "Akerrak okerrak" kalejira Goikoplaza-Etxeberrieta artean.

20:15 Talo-jatea, edariak eta musika, Etxeberrieta plazan.

21:00 Zezen-suzkoa, Etxeberrieta plazan.

Eta zuek?
Zer ospatzen
duzue?





Zaintza Herritar Taldeko zenbait kide. Haizea Barandiaran, Miren Aranguren, Ianire Huizi, Jone Larrañaga, Oihana Jauregi eta Mari Jose Arkonada. AIURRI

Azoka, herri zaintzaile batera bidean

“Elkarren ondoan, zaintzen duen herria” leloa daraman Azoka ospatuko da Plaza Morean, azaroaren 8an. Zaintza Herritar Taldeak eta Andoaingo Udalak antolatu dute, elkarlanean

Xabier Lasa ANDOAIN

Bultzatzaileek deialdia egin dute herriko era guztietako elkarteak eta norbanakoak bertara daitezen. Hona herritarrei luzatu dieten mezua: “Herrian zaintza eraldatzeko topalekua izango da azoka, eta zu bertan izatea ezinbestekoa da. Guztiontzako herria nahi dugulako, elkarren ondoan”.

Plaza Morean izango da Zaintza Azoka, azaroaren 8an. Goiz

partean, hainbat ekitaldi burutuko dituzte bertan. Besteak beste, “Andoaingo zaintza aktiboen mapa” izeneko erakusketa jarriko dute bertan; gogoeta kolektiboa bultzatu nahi duten lau hitzaldi egingo dira, zaintzaren arloan ibilbidea eginga daukaten Euskal Herriko zenbait eragileren eskutik; Andoaingo hainbat elkarte, eragile eta gizabanakoek adostutako manifestua irakurriko dute, eta, az-

kenik, hamaiketakoaz gozatuko dute bertaraten diren guztiek.

Antolatzaileek azokaren helburuak zehaztu dituzte. “Orain arte herrian egindako lanaren erakusleio” izan dadin nahi dute, batetik, eta bestetik, “aurrera begirako bide berriak zabaltzeko espazioa” bilakatu nahi dute ere. Erantsi dutenez, azokak aukera emango du “beste lurralde batzuetako esperientziak ezagutzeko eta andoainda-

rreren arteko hausnarketa kolektiboa sustatzeko”.

“Andoain herri zaintzailea” izatea, xede

“Elkarren ondoan, zaintzen duen herria” leloa daraman azokaren atzean dagoen filosofia zein den adierazi dute: “Herri zaintzailea bihurtu nahi dugu Andoain. Elkarren ondoan egonez, elkar zainduz, herri biziagoa egiteko. Zaintzen gaituen ingurua dugulako gaude bizi; zaintzen gaituen ingururik ez bada, ez dago ongizaterik. Gure existentziaren oinarria dira zaintzak”.

Zaintzaren kontzeptuan sakontze aldera, azaldu dute zaintzak “batzuetan askatasunarekin, duintasunarekin eta eraldaketarekin lotu daitezkeen arren, beste batzuetan zapalkuntza eta diskriminazioaren eremu ere izan” daitezkeela. Abusu asko gertatzen diren eremua da zaintzena eta bidegabekeria horri aurre egiteko lanean jarraitu nahi dugu”.

Egindako lanaren erakusleio

Orain arte herrian zenbait elkarteek eta ekimenek egindako lanaren erakusleio izatea da azokaren helburuetako bat. Alde horretatik, Andoainen

modu kolektiboan azken urteetan garatzen ari diren zenbait esperientzia agerian jarriko ditu azokak, erakusketarekin. Elkarte horietako zenbait aipatu dituzte espreski: hala nola, adineko jendea elkartzea, elkar ezagutzea eta elkarrekin jardura fisiko osasungarri bat egitea helburu duen “Ibili Andoain”, herrian behar handiena dutenei laguntzen dien “Caritas Andoain”, haurtzarorekiko tratu onaren aldeko merkatarien ekimena, edota, gerrek edo hondamendi naturalek eragindako biktimen alde jarduten duen “Andoain Solidario” herri-taldea.

Nolanahi ere, Zaintza Herritar Taldeko kideak zehaztu nahi izan dutenez, “bizitzan denak gara zaintzaileak eta zainduak une batean edo bestean, eta denoi dagokigu zaintza komunitarioa aktibatzea, herri bizigarriago bat lortze aldera”.

Alde horretatik, “Andoain modu batera edo bestera herri-gintzan jarduten duten kirol, kultur eta gizarte arloetako elkarte eta eragileei gutuna bidali zaie azokaren helburuen berri emanaz, eta atxiki daitezen gonbidatuz”.

Gonbidapen-idatziaren bitartez interpelatu diren guzti horietako asko ari dira atxikitzen ekimenara azken asteetan, poliki-poliki. Era horretan, azokaren amaieran guzti horiek adostutako manifestuaren irakurketa egingo dute. Horiek denak mugitzen diren espazioan zaintzaren gainean hartzen dituzten konpromisoak jasoko ditu manifestuak. Azken batean, “nork bere eremuan egiten duena agertzeko eta balioan jartzeaz aparte, etorkizunean sor eta loratu daitezkeen proiektu komunitario berrietarako baldintzak aktibatu nahi dira”.

Besteen eskarmentuak entzungai

Zaintzaren eremuarekin lotutako zenbait galdera zabaldu dituzte antolatzaleek, hala nola, “nola egin zaintza lanak duinagoak? Elkar zaintzeko zein eredu berri sor genitzake herrian? Zein beste esperientziek lagun gaitzakete horretan?”.

Hain zuzen, galdera horiei eta beste zenbaiti erantzuteko asmoz, iruditu zaie oso lagungarria gerta daitekeela jada Eus-



Zaintza Herritar Taldeak gonbidapena bidali diete herriko makina bat eragile eta norbanakoei, azokan parte har dezaten. AIURRI

kal Herriko zenbait lekuetan bide-urratzaile izan diren elkarleen eskarmentua eta ahotsa entzutea.

Alde horretatik, lau esperientzia desberdin beren bultzatzaileren ahotik entzuteko aukera emango du azaroaren 8koazokak. Hain zuzen ere, Matia Fundazioako ordezkari batek pertsona ardatz duen arreta-ereduaren lanketaz jardungo da; Pirinio Garaian eta Haranean Auzosare egitasmoa bultzatzen duen Zabalduz kooperatibako ordezkariak, zaintza publiko komunitarioa saretzeko gakoak azaduko ditu; Iruñerrian adinekoen elkarlaneko bizitokiak bultzatzen dituen Etxekide elkarteko ordezkaria bizitoki kooperatibo eta kolektiboen gainean mintzatuko da; eta azkenik, Hernaniko Maitelan kooperatibako kideak etxeko zaintzak duintze

aldera egindako ibilbidea azalduko du.

Prozesu baten urrats kualitatiboa

Datorren azaroaren 8an ospatuko den Zaintza Azoka “azken urtetan zenbait eragilek abian jarri duten prozesu baten “inflexio-puntua” dela aitortu dute Zaintza Herritar Taldeko kideek. “Andoain zaintzaren arloan eraldatzeko gogoz abian jarritako hausnarketa-prozesuan kokatu behar da. Udaleko ordezkari politikoei eta teknikariek, zaintzaileek eta herriko hainbat eragileek eta norbanakoei hartu zuten parte prozesua, eta egungo egoera aztertu eta etorkizunerako norabidea elkarrekin zehaztu dute.

Prozesu horren emaitzetako bat izan zen Andoain zaintzak demokratizatzeko ekintza pla-

na atondu izana, hurrengo urtetan garatzeko.

Lan tresnatzat hartu behar da ekintza plan hori, eta bost erronka nagusi ditu zutabe: zaintza lanak demokratizatzeko egiturak sortu; herritarren sentsibilizazio eta trebakuntza; artikulazio komunitarioa; zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetu; eta, arreta-eredua eta zerbitzua hobetu.

Funtsean, honako hausnarketa hau dago Zaintza Azoka sustatzen duen ekimenaren oinarrian: “Zaintzek pertsonen bizitzak sostengatzen dituzte eta ongizatea eskaintzen dute; herritarren existentziaren oinarri dira eta zaurgarritasunari aurre egiteko modu bakarra dira. Aldi berean, zaintzek harremanak eta komunitatea eraikitzen dituzte, gure gizartearen oinarria sendotuz”.

Egitaraua



Uxue Bereziartua ilustratzailearen irudiak ditu oinarri azokako kartelak.

10:30: Ongi etorria eta aurkezpena Plaza Morea Andreurdinarenan.
11:15–13:00: Erakusketa: “Andoain zaintza aktiboen mapa”.

Elkarriketak. Gogoeta kolektiboa:

- * Pertsona ardatz duen arreta eredurantz. Matia Fundazioa.
 - * Zaindu dezagun elkar. Zaintza publiko komunitarioak saretzeko gakoak. Auzosare egitasmoa (Zabalduz kooperatiba).
 - * Bizitoki kooperatibo eta kolektiboak. Etxekide.
 - * Etxeko zaintzak duindu ditzagun. Maitelan kooperatiba.
- 13:00.** Manifestuaren irakurketa eta hamaiketakoa.

Eskualdeko informazioa, orain ere, Aiurriren WhatsApp kanaletan

Batu zaitez!

Aiurri Aiztondo

Aiurri Andoain

Aiurri Urnieta



Habitantes de Innsmouth elkarteko kideak ostiral arratsaldeko hitzaldiaren ondoren. AIURRI

Rol-jokoetan ere bada euskaraz aritzerik

Rol-jokoak oinarri, hiru eguneko jardunaldiak antolatu zituen joan den asteburuan Habitantes de Innsmouth elkarteak: “Euskal rola: Zer? Nola? Noiz?” hitzaldiarekin ekin zioten hitzordu-sortari, Rolariak elkartearen eskutik

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Protagonismo berezia hartu dute rol-jokoek Urnietan, pasa den asteburuan: Habitantes de Innsmouth elkartearen ekimenez, ostiraletik igandera, hiru eguneko egitaraua izan da Lekaio kultur-etxean. Hitzorduen artean, aparteko arreta eskaini diote aurtengo jardunaldietan euska-

rari, rol-jokoek hizkuntzarekin duten harremanaren gainean hausnartzeko asmoz. Asteburuaren abiapuntu gisa, Rolariak elkartearen bisita jaso zuten herritarrek ostiral arratsaldean: “Euskal rola: Zer? Nola? Noiz?” hitzaldiak eman zion hasiera hitzordu-sortari, bertako kide den Pello Gutierrezen eskutik.

Euskaltzaletasunak eta rol-jokoek bat egiten dute Rolariak elkartearen, nahiz eta Gutierrezen esanetan, taldea ez izan euskaraz egiten den rolaren ordezkari, ez eta bozeramaile ere. 2018an hasi zuen bidea elkarteak, baina 2020an, pandemiatik aurrera eduki zuen, hizlariaren bizipenez, bultzada handiena. Besteak bes-

te, euskaraz sorturiko Atopia-rol-jokoaren sorrerarekin lotzen du igoera Gutierrezek, izan ere, Durangoko Azokako Sormen Beka irabazi zuen eta oihartzun mediatikoa ekarri zion horrek, bai jokoari berari, bai rol-jokoei orokorrean: “Ia-ia, rolaz harago doan artefaktu politikoa, artistikoa da Atopia”, azaldu zuen hitzartzean elkartekideak, “rola ezagutzen ez zuen jendearentzat ere oso erakargarria da”.

Gaur egun, Euskal Herri oso 30 lagunetik gora daude sartuta Rolariak elkartearen batez ere, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako jendea dago; errealtate soziolinguistikoarekin lotzen du hori Gutierrezek. Hari horri tiraka, sare gisa darabilten Telegram talde irekia ere badute, 140 bat kidez osatuta. Lurraldetasunaz gain, genero ikuspegia-ri dagokionez ere, zer landua badutela uste du elkartekideak, oro har, “gizonez osaturiko taldeak direlako batez ere”, nahiz eta pixkanaka egoera aldatzen doan.

Euskarazko rola, gorantz

Helburu argia dauka elkarteak, “mundua konkistatzea”. Hori,

lortu bitartean, baina, “rola euskaraz egitea eta bultzatzea” dute xede; existitzen diren rol-jardunaldiak detektatzen dituzte, hara joan eta euskarazko partidak proposatzeko: “Denak gara euskaltzaleak eta rolaren maitaleak, eta iruditzen zaigu rola euskaraz egin behar dela. Orain arte egin izan da, baina beti oso ezkutuan eta oso talde itxietan”.

80. hamarkadaren bueltan lur hartu zuten rol-jokoek, gutxi gorabehera, Euskal Herrian. “Eduki gehiena”, ordea, gaztelaniaz eta ingelesez zegoela ekarri zuen gogora Gutierrezek. Horrela, 2019. urtera arte ez zen euskara hutsetik sorturiko rol-jokorik argitaratu. Atopiaren ondoren, “izugarritzko gorakada” eduki dutela adierazi zuen elkartekideak eta, gaur egun, euskarazko hamar bat joko inguru daude argitaratuta: “Espontzialki egingo du gora eta hori oso seinale ona da iruditzen zait”. Antzinako Eskola, Adur, Makina Maixu, Gudamailu, Pastorola... Azken hori hizlariak berak sorturiko rol-jokoa da Zuberoako pastoralak oinarri: “Rolean inoiz aritu ez den jen-



Pello Gutierrezek, Rolariak elkarteko kideak eman zuen hitzaldia. AIURRI



Besteak beste, Atopia rol-jokoa ezagutzeko aukera izan zuten herritarrek. AIURRI



Askotariko rol-jokotan murgildu ziren herritarrek asteburuan. AIURRI



Lekaio kultur etxea izan zen rol-jardunaldiaren topagunea. AIURRI

dearentzat ere oso ondo funtzionatzen duen jokoa da. Rola ulertzeko paradigma aldatu dit Pastorola sortzeak”.

Baliabideak, hutsunea betetzeko

Rol-jokalari euskaldunen topagunea izateko bidean, ErROLda dauka eskura Rolariak elkarteak bere webgunean, pixkanaka, rol-jokoetan aritzen diren Euskal Herriko taldeen mapa osatzeko eta artikulatzeko. Era berean, baliabideak eskaintzeko espazioa ere izan nahi du elkarteak. Adibidez, rol-jokoak,

nagusiki ingelesez hedatu direnez, nola erabili euskaraz hitzak? Nola itzuli “Dungeon Master”, “Critical”, “Munchkin”...? Hutsune horri erantzuna eman dio Rolariak elkarteak Rol Hiztegiarekin. Bertan, rol-jokoetan erabili ohi diren adierenen zerrenda dute osatuta, Gu-

HIRU EGUNEKO JARDUNALDIAK IZAN DIRA HERRIAN, ROL-JOKOAK ABIAPUNTU

tierrezek jardunaldietan azaldu zuen moduan: “‘Roltzaindia’ sortu nahi izan dugu, guztiek erreferentzia bat edukitzeko”.

Ildo horretatik, burujabetza ludikoaren aldeko aldarrikapena ere egiten du elkarteak, beste hizkuntza batzuetatik eratorritako jokoez gain, euskaratik sorturiko jokoen garrantzia nabarmentzeko. Fikzioa “oso garrantzitsua” da Gutierrezek, “mundua ezagutzeko eta ulertzeko” tresna baita berarentzat. Hala, jokoei etxetik eta euskaraz ere erreparatzeko aukera bermatu nahi du Rola-

riak elkarteak: “Erreferentea kanpoko denean, gure errealitatearen pertzepzioa ere kanpoko ulermen baten bitartez egiten dugu”. Horren aurrean, lanean dihardu taldeak, rol-jokoetan euskaraz murgildu nahi dutenek aukerak izan ditzaten: “Euskaraz egindako rol-joko

askok ez dute zentzurik beste hizkuntza batean, eta uste dut, hori ere gakoa dela”, azaldu zuen hitzaldian Gutierrezek, “ikusi da aisialdirako euskarazko materiala edukitzeak nola laguntzen duen hizkuntza baten berpiztean. Erreferentek sortu nahi ditugu”.

EUSKARA ETA ROL-JOKOAK UZTARTZEN DITU ROLARIK ELKARTEAK



Rolariak elkartearen webgunea ikusteko, eskaneatu QR kodea.

"Ez gara alferrik pasako", Saroben

Pasa den ostiralean, bete egin zen Sarobe arte eszenikoen gunea, Lurdes Iriondori buruzko "Ez gara alferrik pasako" dokumentalaren proiektzioan. Iriondoren heriotzatik bi hamarkada igaro direnean, artistaren ibilbidea nabarmendu eta omendu nahi du dokumentalak.

Urnietako alkateak ireki zuen hitzordua, Jorge Seguradok, musikariaren ilobak, hain justu ere. Amaieran, berriz, Inge Mendioroz Andoaingo zuzendariarekin eta Idoia Garzes Lasarte-Oriako gidolariarekin batera solasteko aukera izan zuten aretora gerturatutako herritarrek. Ikus-entzuleen artean ziren Iriondoren senitartekoak, baita protagonista berezia gertutik ezagutzen zuten lagunak. Herriko zein lurraldeko ordezkari politikoak ere bertaratu ziren Urnietara, ostiral iluntzean.



AIURRI

"Ostiraletan Aittu!" musika-zikloa, ESCIVIn

Egiako Zarratak punk-metal estiloko taldeak kontzertua eman zuen ESCIVI Zine eta Bideo eskolan, aurreko ostiralean. Bertako ikasleek zuzenean emititu zuten, eta jada ikusgai dago Youtuben. Ikasleek euskal taldeekin elkarlanean garatzen duten egitasmoa da hau, eta dagoeneko bosgarren ikasturtea da aurtengoa. Produktzioa, errealizazioa, irudia-argiztapena eta soinua alorretako ikasleek abiatu dute ekimena eta haien irakasle dira Maria Luisa Alberdi, Pablo Garcia, Iñigo Carrasco eta Estanis Elortza.

Emanaldi gehiago egingo dituzte azaroaren 21ean, abenduaren 5ean eta 2026ko urtarrilaren 9an. Emanaldi irekiak dira, herritar guztiei zabalik daude ateak.



AIURRI



BURUNTZALDEA IKT

Neguko Ligari ekin diote

IGERIKETA Neguko Ligako lehen jardunaldiarekin denboraldiari hasiera eman zioten Buruntzaldea IKT taldeko lagunek. Tartean izan ziren Nille Becerra, Ane Meyer, Ander Martinez, Laida Guerrero eta Aitor Estanga andoaindarrak. Datorren azaroaren 15ean dute bigarren hitzordua.



AIURRI

Lasarte-Oriako kaleetan

LASTERKETA Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiairen edizio berria egin zuten aurreko asteburuan eta bertan parte hartu zuten andoaindar eta urnietar ugarik. Hainbat argazki Aiurri.eus webgunean ikusgai daude. Askorentzat Behobia-Donostia prestatzeko baliagarria da.



Leizaran, artxiboko irudian. AIURRI

Leizaran Ernio, igandean Allurralden

ESKUBALOIA Euskal Ligako bosgarren jardunaldia, Basauriren aurka

Erredakzioa URNIETA Euskal Autonomia Erkidegoko lehiaketak zailtasun handikoak bilakatu dira Leizaran Ernio inmobiliaria taldearentzat. Iaz majo sufritu zuten eta aurtengo hasiera ere zaila izaten ari da. Lehen lau jardunaldietan ez du punturik lortu Andoaingo taldeak. Aurreko asteburuan sailkapenean 3. postuan dagoen Elgoibarren kantxan galdu zuten (32-21). Igandean, aurrealdean dagoen Basauri hurbilduko da Allurraldera. Partida igandean izango da, 11:45tan hasita.

Leizaran Lanbroa taldeak Elgoibarren aurka galdu zuen Allurralden (29-35). Asteburu honetan ez dute partidarik jokatu eta azaroaren 9an Aloña Mendiren zelaian ariko dira.



AIURRI

Hirugarrenaren bila

FUTBOLA Gizonezkoen Erregional gorengo mailan, etxean aritu zen UKE Santo Tomas Lizeoaren aurka (2-2). Igandean, 12.00etan Allerruren aurka jokatu dute. Emakumezkoek ere berdinketa lortu zuten etxean, Usurbilen aurka (1-1). Igandean, Luberriren zelaian ariko dira 15:50tan hasita.



AIURRI

Berdinketa Berazubin

FUTBOLA Gizonezkoen Ohorezko erregional mailan, Euskaldunak puntu baliotsua lortu zuen (0-0). Asteburuan, Ubitarten, Beasain B taldearen aurka ariko dira, 12:50tan hasita. Emakumezkoek bostetik bost irabazi dituzte. Azkena, Zarautzen (1-4). Igandean, 16:00tan, Allurralden dute hitzordua.



urriak 23 - azaroak 13

Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** produktuz beteriko saskiak eta eman balioaren **%25 zonaldeko euskalgintzari**

errigora.eus

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Erakusketa

"Continuo-discontinuo. Una geometria", Rakel Ubago artista eta arkitektoaren eskutik.

Bastero Kulturgunea.

Azken eguna: Azaroak 15.

LEHIAKETA

ANDOAIN Udal egutegia

2026. urteko Udal egutegia osatzeko argazki-lehiaketa. Saridun bakoitzak 150 euroko txartela eskuratuko du, herriko merkataritzan kontsumitu dezan. Oinarriak Andoain.eus webgunean.

Azken eguna: Urriak 31.

IKUSKIZUNA

ANDOAIN Logela multimedia

"Semaforoa" antzezlan multimedia da, antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika uztartzen dituena.

12:00, Bastero Kulturgunea.

Azaroak 9, igandea.

AZOKA

ANDOAIN Larramendi Bazkuna

Gastronomia eta artisau azoka, eta baita tonbola ere. Iaz izandako arrakasta errepikatu nahiko luke Larramendi Bazkunak. Egitarau osoa 16. orrialdean.

11:00, Goikoplaza.

Azaroak 15, larunbata.



Gau Beltza, artxiboko irudian. AIURRI

ANDOAIN, URNIETA Gau beltza

Euskal giroko ospakizuna, ostiral arratsaldean hasita, bi udalerrietan.

Urriak 31, ostirala. 18:30, Etxeberri plaza.

Urriak 31, ostirala. 18:00, Goikoplaza.

SARIKETA

ANDOAIN Ipuin lehiaketa

Martin Ugalde ipuin lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.

18:30, Bastero Kulturgunea.

Azaroak 13, osteguna.

KONTZERTUAK

ANDOAIN Xiberoots

Andoaingo Gaztetxearen urteurrena.

22:00, Andoaingo Gaztetxea.

Azaroak 7, ostirala.

ANDOAIN Hilario Rodeiro

Folklore eta jazz modernoa uztartzen ditu Andoain bizi den musikariak.

19:30, Bastero Kulturgunea.

Azaroak 14, ostirala.

ANDOAIN Anestesia

Andoaingo Gaztetxearen urteurrena.

22:00, Andoaingo Gaztetxea.

Azaroak 15, larunbata.


ANDOAIN Udal Musika Eskola

Bandako kideak, bakarlari lanetan.

12:30, Bastero Kulturgunea.

Azaroak 16, igandea.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Los domingos

Larunbata, 1. 19:30.

Igandea, 2. 19:30.

Astelehena, 3. 17:00,

19:30.

Heidi. El rescate del lince

Larunbata, 1 17:00.

Igandea, 2. 17:00.

La cena

Larunbata, 8. 19:30.

Igandea, 9. 19:30.

Astl., 10. 17:00,

19:30.



SINOPSIS



Los domingos

Zuzendaria eta gidoilaria: Alauda Ruiz de Azua. **Aktoreak:** Patricia Lopez Arnaiz, Blanca Soroa, Miguwk Garces, Juan Minujin, Mabel Rivera. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 116 minutu.

Ruiz de Azuaren berriena

Ainara (Blanca Soroa), 17 urteko neska idealista eta adimentsua, unibertsitateko ikasketak zein izango diren erabaki behar du. Hori, behintzat, bere familiak espero du. Hala ere, neska gero eta hurbilago sentitzen da Jainkoarengandik, eta klausurako moja izatea planteatzen hasi da. Albisteak ustekabean harrapatzen du familia osoa, eta horrek guztiarentzat arrakala eta benetako proba bihurtzen du.

Bus-zerbitzua, hilerrira

Azaroaren 1ean, bus berezia.

Andoainen, goizez:

- Sorabillatik: 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00.

- Hilerritik: 09:40, 10:40, 11:40, 12:40, 13:40.

Andoainen, arratsalde:

- Sorabillatik: 15:00, 16:00, 17:00, 18:00.

- Hilerritik: 15:40, 16:40, 17:40, 18:40.



ONDAVASCA



IN MEMORIAM

BLANCA VILLAFañE CAMPO ANDOAIN

Aitaren eta biktimen memoria aldarrikatu zuen

Blanca Villafañe Campo andoaindarra hil zen joan zen urriaren 20an, 81 urte zituela. Gorpua Cantabrian ehortzi ondoren, haren aldeko hileta-elizkizuna igandean egin zuten San Martin Tours elizan.

ETak 1993an Andoainen hil zuen Juvenal Villafañe Garciaren alaba zen eta, diskrezioz baina irmo, aitaren eta terrorismoaren biktimen memoria aldarrikatu zuen, bereziki, Elkarbizik deitutako ekitaldietan.

Urteak aurrera joan ahala familia kideak hiltzen joan ziren eta familia osotik Blanca eta haren iloba bizi ziren.

Juvenalen heriotzaren 25. urteurrena 2018ko irailean izan zen eta bertan protagonismo handia bereganatu zuten Blancak eta



Blanca Villafañe eta Mari Paz Artolazabal, artxiboko irudian. AIURRI

haren iloba Oscar Villafañe Merino andoaindarrak.

Geroztik, hainbat urtetan, Elkarbizik azaroan antolatzen duen Memoriaren Eguneko

ekitaldian parte hartu zuen. Haietan guztietan Mari Paz Artolazabalen ondoan agertu zen biktimen omenezko lore-eskaintzan parte hartuz.

Itxiera gertu dute

Kaletxikin hamarkadak zabalik egin dituen Mayer elektratresna dendak likidazioa iragarri du, egunotan. Erretiroa hartzeko garaia iritsi zaie, haiei ere. Andoaingo merkatalgune ezagun asko itxi dira arrazoi beragatik. Besteak beste, Kale Nagusiko Rosco janari-denda, Zumea kaleko Saldias arraindegia edo Kaleberriko Kurpil Garmendia bizikleta-denda.



AIURRI

Ospitale publikoaren aldeko manifestazioa deitu dute

ELA eta LAB sindikatuek deitu dute, Tolosaldearentzat zerbitzu guztiez hornitutako azpiegituraren alde

Erredakzioa ANDOAIN

ELAk eta LABek manifestazioa deitu dute azaroaren 22rako, Tolosaldearentzat ospitale publikoa eta zerbitzu guztiekin hornituta egotea eskatzeko. Eguerdiko 12:00etan abiatuko

da Triangulo plazatik. Honatz, agerraldian adierazitakoa: "Sailburuak egunotan ospitale berriaren inguruan eman dituen xehetasunek ez dute bermatzen Tolosaldeako herritarrentzat 100% publikoa izango den eta

zerbitzu guztiak izango dituen osasun arretarik, ez eta Asuncioneke langileak ospitale berrian lanean jarraitu ahal izatea. Horregatik, ELAk eta LABek manifestazioa deitu dute azaroaren 22rako, Asuncioneke 350 langileren enplegua bermatu dadin eskatzeko".

Sindikatuak eskualdeko eragileei atxikitzea eskatzen diete eta, bide batez, Tolosaldeako alkateei, langileen subrogazioa bermatzen ez bada, proiektua ontzat ez ematea eskatzen die.



TREBA GURASOAK

Gurasoei zuzenduriko hitzaldiak

"Seme-alaben autoestimua elikatzen" izenburupean, bi hitzaldi antolatu ditu Urnietako Udalak, Foru Aldundiarekin elkarlanean, "Treba Gurasoak", egitasmoaren barruan. Azaroaren 13an eta 20an izango dira hitzorduek, Kiroldegiko erabilera anitzeko gelan, arratsaldeko 17:30ean.



AIURRI

Kantazanuen kantujira

Hilabetero egiten duten bezala, kalera aterako dira ostiral honetan Kantazaun taldeko kideak. Arratsaldeko 19:00etan egingo dute hitzordua San Juan plazan. Bada, hortik abiatuta, herriari itzulia emango diote, euskal kantutegia oinarri hartuta.



Asteartean egin zuten prentsa-agerraldia. 28KANALA

ANDOAINO EUSKERA,
BIHOTZETIK KALERA!



AZOKA

Azaroak 15 ★ ANDOAINGO GOIKOPLAZAN

Gastronomia eta artisau azoka + TONBOLA

11:00: Azoka
irekiera

12:30: Anuk
eta Eleneren
kontzertua

16:30: Toka
txapelketa

18:00: Irrintzi
txapelketa

19:00: Komerik
taldearekin
erromeria

**Zatoz
tonbolan
parte
hartzera!**

Otorduak, eskapadak, talasoterapia
saioak, abentura, kirola, literatura,
musika, kontzertuak... eta askoz
gehiago!

MILAKA SARI ZOZKETAN!

*Iker
Etxebesteren
Brew & Roll
garagardoa eta
Txomin Parrilaren
jakiak*

Antolatzailea:



Babesleak:



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
harrera@larramendibazkuna.eus